

GEHEGIZKO POLISEMIAREN AURKA, HIZKUNTZA-ZEHAZTASUNAREN ALDE

Zenbaitetan nire buruari galde egiten diot neurririk gabeko polisemia ez ote den euskararen aurka egin dugun deliturik okerrenetako bat. Polisemia era natural batez bada eta beti izan da, baina euskararen kasuan uste dut gehiegikeria egin dugula, eta hizkuntza aberasteko –eta ez txirotzeko– omen dagoen baliabide batez itsuski baliatu garela.

Har dezagun adibidetzat “agiri” hitza. Duela 30 urte, hitz honen esanahia zerbaitekin lotu beharrean izan bagina, ziur aski berehala etorriko zitzaigukeen burura “nortasun-agiria”, hau da, gure nortasuna egiaztatzen duen dokumentu edo agiri ofiziala. Segur asko, horren adierarik zabalduena hori bera izango zen. Eta, hedaduraz, “dokumentua, orokorki”, eta “izaera ofizialeko dokumentua, partikularki”.

Aldiz, gero eta adiera gehiago gehituz joan zaizkio terminoari, eta hor dago koska; izan ere, adiera horietako zenbaitzuk deigarriak gutxienez gertatzen baitira. Esaterako, garai batean mundu guztiak zekien “pliego de condiciones básicas” nola esan: “oinarrizko baldintzen plegua”, harik eta “plegu” hitzaren ordeztu “agiri” hitza erabili behar genuela norbaiti bururatu zitzaion arte, *azken batean zer da plegu bat nolabaiteko dokumentu bat baino?...* pentsatuko zuen. Beraz, hortik aurrera, nahaste-borraste polita sortu zen “baldintza teknikoaren plegua” gora “baldintza teknikoaren agiria” beheara, eta urteak igarota ere, nahaste-borraste horrek bere horretan dirau, zeren itzultzaile profesional bat horrelako aldaketak ametzeko gauza baldin bada (marmarka ametitu arren), arloko profesionalek beste horrenbeste egitea zailagoa baita, azken batean hauek badute nahiko lan euren proiektuak idatziz jartzen eta alderdi teknikoak arduratzen. Gainera, profesional batek duda egiten badu horren oinarrizkoa eta garrantzizkoa den dokumentu bati eman behar dion izenaren gainean, nolatan animatuko da plegu osoa euskaraz osorik idaztera? Hasiera benetan txarra, alde horretatik.

Nolanahi ere, hor ez da amaitzen “agiri” hitzaren polisemia; egia esan, hasi baino ez da egiten. Gure herrian “diploma eta título” askotxo omen genituen banatzeko, eta hitzak gure gertuko erdaratik hartu izanak batzuk urduri jartzen zituenez, “diploma” eta “título” hitzak bazter uzteko tentazioa izan zuten batzuek eta hor hasi ziren “agiri” adieraz baliatzen berriro, kasu honetan arrakasta handirik gabe, zorionez.

Aipatu adierak bazuen hurbileko ahaide bat: “egiaztagiria” edo “ziurtagiria” (“certificado”)¹. Eta egiaztagiriez ari garenez, hortxe ditugu “fe de vida” ezagunak, horiek ere “agiri” bihurtuak, zeren, noski, nolatan erabiliko dugu erdarazko kalko arrunt bat, ezta? Hitzak frantsesetik behintzat kopiatuko bagenu, hemen, Euskal Herriko Hegoaldean, zorte apur batez agian ez ginateke enteratu ere egingo eta horrela pozikago biziko ginateke. Edo oraindik hobe, baten batek dagoeneko egin duen moduan, jo genezake begiratzeraz ea nola arraio esaten duten hori alemanez, txineraz edo galesez (super guay!), eta horrela mahukatik atera genezake hitz berri-berri bat, hitz orbangabe bat eta bide batez... sekula erabili gabeko hitz bat! Kristoren pagotxa, alegia! Zer demontre, hainbeste milioi euskaldun elebakar edukita, luxu horiek eta gehiago zilegitu ahal dizkiogu geure buruari!

Baina polisemia gehiago badira; adibidez, “carta” esateko ere balio digu, “Carta de los Pueblos del Este”ren eta antzekoen zentzuan. Sar ezazu “agiri” bat eta mundiala geratuko zaizu. Listo. Gaztelerarekin antzik ez. You did it!

Eta “idazkia”, “adierazpena” edo “manifestua” nola esan ez badakizu: ez da deusik gertatzen! Zertarako daukagu “agiri” hitza, euskararen etsai naturalek sarrarazi gaituzten ataka gaizto hauetatik irteteko ez bada?

“Albaran” bat behar duzula? Bada lor ezak “agiri” bat, txo, gehiago itxaron gabe, amaitzen hasiak dira eta!²

Badago antzinako herri ahaztu bat, “Agiri” deitua (zorionez, kasu honetan ez da mende honetako inork asmatu).

Laster, “euskal herria” deitzeari utzi eta “euskal agiría” izatera pasatuko gara (hortik euskal “guiri”ak izatera, urratsño bat baino ez).

“Agirretarak”...? Ezta pentsatu ere; aurrerantzean, *agiritarrak!*

Behiekin ere berdin-berdin: “txuri”, “beltz” eta abarren ordeztuak, hemendik aurrera “agiri 1”, “agiri 2” “agiri 3” eta holaxe, 250 abelburu (klonatuak denak, ahal bada) zenbatu arte.

Hori bai, arlo juridikoko itzulpen bat euskaratik gaztelerara itzultzeko pasatzen dizuten egunean, egilearen hildako guztiak etorriko zaizkizu gogora, testuari inongo zehaztasunik ez dakarkioten hitz polisemiko alfer eta ezegokiek behin eta berriro topo egiterakoan; azken finean, hitz horien ekarpen bakarra itzulpena tratatzea eta nahastea baino ez da, eta argi esan behar da: askotan, emaitza hoberik ezin lortzea, ez da itzultzailearen trebeziarik ezaren erruz

¹ Hemen ere komeni litzateke adiera bakoitzari berea ematea eta sinonimo absurdoen bidea behingoz moztea: egiaztagiria = acreditación; ziurtagiria = certificado; frogagiria = comprobante.

² albarán = emate-agiria. Nik “albarana” esango nuke, eta “emate-orria” erabiliko nuke “hoja de entrega” esateko. Zer dela-eta eman behar zaio halako “ofizialtasuna” paper xume eta arrunt bat besterik ez den albaran bati, berriz ere ditxoeko “agiri” hitza tartekatuz?

izaten, gazteleran latinean edota erromantzean bere jatorria duten hitzak mozorrotzeko ahalegin zentzugabearen emaitza baizik, horrelako kasuetan arrabol purista terminoen gaintik pasatzea bezalako konponbiderik ez omen baitago zenbaitzuentzat; eta ematen du dena ondo doala, arlo espezifikoetan lan egiten hasten zaren arte, orduantxe ohartzen zara-eta horrek ez duela guztiz funtzionatzen, lortzen den gauza bakarra hizkuntza itotzea dela, hizkuntzak zehaztasuna galtzea dela eta hizkuntza bera badaezpadako etorkizun batera eramatea dela, zeren, azken batean, zehaztasun terminologikoa behar dugu (are gehiago garai hauetan). Eta antzekoak diren baina berdin-berdinak ez diren kontzeptuak izendatzeko hitz berbera erabiltzeak ondo funtziona dezake lagunarteko eremuetan, edota komunikabideetan, oro har, bai, baina eremu espezializatuetan, lanbideetan eta profesionalen idazkietan polisemia-mota hori garbi baino garbiago dago soberan dagoela, eta gehiago gogogabetzen gaituela animagotzen baino.

Agiri terminoaren hainbat hitz polisemiko: acta = agiria // acuse de recibo = jasotze-agiria // abonaré = abonu-agiria // archivo = agiritegia // canje de notas = agiri-trukea // certificación = egiaztagiria, ziurtagiria, frogagiria // circular = agiria // comprobante = egiaztagiria, ziurtagiria // carta de embarque = ontzirapen-agiria // instrumento jurídico = agiri juridikoa // carta de derechos sociales = giza eskubideen agiria // libro de actas = agiri-liburua // parte de accidente = istripu-agiria // partida de defunción, etc. = heriotza-agiria // pliego de cláusulas = klausulen agiria // eta abar.

Hemen akaso bereizi beharra dago, alde batetik, “agiri” terminoaren erabilera hitz konposatuetan, eta beste alde batetik, “agiri” hitzaren berezko erabilera, izen modura alegia. Lehen kasuan, ez du horren emaitza txarririk eman, adibidez, “heriotza-agiria”, “jaiotza-agiria”, “egiaztagiria”, “frogagiria”, eta abar ondo errotu dira eta ez dute aparteko arazorik eman (itxuraz, bederen), eta azkeneko emaitza berez desberdintzen den termino bat izan da, gainerako hizkuntzetan legez. Baina “agiri” terminoari, izenari, badaezpadako jatorria duen esanahi bat berezkoa balu bezala-edo gehitu zaionean, adibidez, akta = agiri, circular = agiri, plegu = agiri, nota = agiri, carta = agiri, eta abar, kasu horietan, orduantxe hasten da argi gorria pizten. Zergatik? Zehaztasuna galtzen hasi garelako. Bestalde, izaera teknikoa duten esanahiak izanik, ez dut ulertzen nondik nora datorren horrenbesteko “makillajea” erabiltzea.

Aizue, duela 20 urte oso gutxi itzultzen zen euskaratik gaztelaniara, baina gaur egun, zorionez, euskaraz zuzenean idatzitako testuak oso ugariak dira, batez ere administrazio-arloan (gehienak, ziur aski), eta orduan hasten zara aipatu zehaztasunaren falta nabaritzen.

Goian “agiri” hitza jarri dut gehiegizko polisemia horren adibide gisa, baina ez da kasu bakarra (hala balitz, gaitz t’erdi). Arazoa beste hitz batzuekin ere birsortzen da, eta batzuetan, baita izugarri “oinarrizkoak” diren terminoekin ere.

Adibidez, IVAP erakundeak duela urte asko argitaratutako liburuxkan ondoko proposamena egiten zuten dekretuen, legeen eta abarren funtsezko eta oinarrizko atalak izendatzeko:

Título = Titulua // Capítulo = Kapituluak // Sección = Sekzioa // Artículo = Artikulua // Párrafo (parte numerada del artículo) = Paragrafoa // Apartado (parte del párrafo acompañada de una letra) idatz-zatia.

Beno ba, gaur egun hori ez da bat ere zorrotz errespetatzen. Aitzitik, nik esango nuke zentzu horretan anarkia handia dagoela. Beste termino batzuk erabiltzen dira edota nahasita ere ikusi izan ditut, esterako, "atala = artikulua". Eta hori, zergatik? "Artikulu" hitzak gaztelerazko "artículo" hitzarekin antz *handiegia* zuelako?

Bitxia da, baina legeak, dekretuak, arauak, kontratuak, txostenak, irizpenak, eta abar nahiko ondo itzultzen ari dira, baina, hala eta guztiz ere, zenbaitetan, batez ere udalen kasuan, aipatu legezko idazkiak osatzen dituzten hitzik oinarrizkoenetako batzuetan zehaztugabetasun-falta hori nabaritzen da. Zailena ondo eta errazena gaizki egiten ariko bagina bezala da, hau da, oinarrizko edo funtsezko termino bakoitzari esangura bakar eta ezin-nahasizko bat eman ordez, polisemia absurdo batean erori gara.

Eta "norma", "normativa", "reglamento" eta "régimen" hitzekin dagoen nahaspila ere zeruetaraino iritsi da konponbide eske: arau, araudi, arautegi, erregelamendu, erregimen, araubide... Zer da hori, aberastasun terminologikoa ala *se-me-hace-la-picha-un-lío*?

Edota gauza guztiei "elkarte" deitzeko ditxosozko mania hori: asociación, sociedad, federación, confederación, comunidad, entidad, organización, unión, parque (parque tecnológico de Miramon = Miramongo teknologia elkartegia)... Azkenean, den-dena da "elkarte". Eta, esan bezala, horrek lagunarteko hizketan ez du aparteko garrantzirik, baina testu tekniko bat itzultzen ari zarenean, bai, aparteko garrantzia dauka.

Eta beste horrenbeste gertatzen da "comisión", "comité", "junta", "consejo", "dirección" terminoekin... Ez dakit, ba, zenbaitzuentzat dena amaitu da "batzorde" izaten.

Nire ustez, gehiegizko polisemia honek zer suposatzen duen garbiago ikusteko oso ariketa hona litzateke asmatu nahi diren hitz berriak euskarazko testu teknikoetan erabiltzea eta gero norbaiti pasatzea gaztelaniara itzultzeko. Orduan konturatuko ginatke askotan hizkuntza ez dela behar bezalako zehaztasunarekin erabiltzen; egia esateko, izaera teknikoa duten testuei halako lagunarteko enfoke edo ikuspegi bat emango balitzaie bezala da. Eta kalean, lagunartean, horrek ez du arazorik sortzen, ez da beharrezkoa horren zehatzak izatea, eta hitz pila baten ginetik salto egin dezakegu polisemia kolokial bat

erabiliz, nolabait esanda; baina jarrera hori hizkera teknikoaren mundura ekartzeak gatazkak baino ez ditu pizten. Eta goian esan dudan moduan, gehiago gogogabetzen gaitu animagotzen baino.

Hitz baten balizko zentzu polisemikoa erabaki baino lehen, hitz hori proban jarri beharko genukeela uste dut. Nola? Administrazio edo jurisprudentzia arloko testuetan berau erabiltzen eta euskaratik gaztelaniara itzultzean nola jokatzeko duen aztertzen, esanahi berriak erabili nahi dugun termino berriaren zehaztasuna eta doitasuna kili-kolo jartzen dituen ala ez egiaztatzeko; izan ere, hortxe jartzen baita agerian gauzak ondo bideratuta doazen ala ez, terminologiari dagokion bezainbatean. Eta, gainera, oro har, esango nuke baietz, gauzak ondo bideratuta daudela, eta orain arte lortutako emaitza onek horrelaxe frogatzen digute. Baina oraindik zehaztasun handiagoa, askoz handiagoa, lor dezakegu (eta lortu behar dugu); orokorrean ez ezik, arlo profesionalean ere eroso sentiaraziko gaituen hizkuntza bat eskuratzeko.